

## Pablo BARRIO. *Ama, hor al zaude?*

2003ko Toribio Altzaga Saria. Euskaltzaindia-BBK

Karlos del OLMO

Pablo Barrio idazle berantiarren lehenengo lana dugu *Ama, hor al zaude?* antzezlan. Literatura dramatikoak dugu mintzagai, beraz. Literatur generorik baztertuena. Kritikariak guztiz ahaztuta izan ohi duten salla. Argialetxe gehienek izurritearen antzera saihets egindako idazlan mota. Hedabideentzat, antzerki idazleak ia ez dira existitzen. Ezta literatura bera izateko zio bakartzat duten telebista programa handiuste orojakilean ere. Eta sormen lan gutxi argitaratzen bada, azken urteotan Euskal Herrian idatzitako lanetatik, batere ez da heltzen eszenatokietara. Oso egoera... dramatikoak, beraz. Guztia-ekin ere, literatura dramatikoak bazter uzteko joera horretan, salbuespen alpagarrien bat edo beste dago. Bada argialetxe ausartik. Eta idazketa dramatikoak saritzen duen literatur sariketarik. Eskerrak, gaurko euskal kultura ia umezurtz delako literatura dramatikoari dagokionez. Lortu ote du inoiz Euskadi Saririk antzezlanean batek? Edo, bestela itaunduta, lortuko ote du noizbait? Gaitza ere gaitza, benetan!

Aditu batzuk kexu agertu izan dira noiz edo noiz Euskal Herrian idazten den antzerkia tauletara eroaten zaila delako, hurbilago egoten delako eleberritik ahoz esateko testutik edo gidoitik baino. Baiteke. Baina etengabe ikusten dugu inguruko hizkuntza eta kulturetan zelako ahaleginak egiten dituzten klasikoak eguneratzen. Gu, ordea, ez gara gauza gaurko testuak ere antzokietara erakartzeko. Politikoak geure kabuz erabakitzeko eskubidea, independentzia, hitza eta erabakia, euskal kultura... aldarrikatzen ditugu geure kulturaren harroinetako bat (antzerki propioa, nazionala) ahaztuta dugula. Baina hala-ixe gertatzen dira gauzak. Mende hasieran, II. Errepublikaren garaian,

frankismoan, euskal antzerkia ia modu bakarra zen euskal kultura lantzeko. Gauzak izugarri aldatu dira, ordea. Botere autonomikoak ez dio inolako mesederik ekarri euskal antzerkigintzari. Egungo euskal idazle bizien obrak ez dira antzezten, klasikoak ere ez... Zer dugu, orduan, euskal eszenatokietan? Klonak, beste hizkuntza eta kulturetan arrakasta lortutako lan komertzialen klonak, aldakiak, itzulpenak...

Pablo Barriok oso gaurko gaia dakar lerroetara: Hirugarren Munduko emakume behartsuen egoera, Lehenengo Munduko hipokresia... Egileak berak aitortzen duenez, moldatu ezean, antzezten zaila gerta daiteke testua, oso pasarte luzeak dituelako, besteak beste. Baina ezin uka dakioke dramatikotasuna testuari. Zorigaitzez, seguru asko azken urteotan argitaraturiko beste lanen bide beretik joango da ahanzturaren portura, alegia, institutuetan edo unibertsitatean ikasleek buruz ikasiko eta irakurriko ez dituzten generoen arabera idazleen zerrendara. Gainera, horrelako sariak plazaratzen dituzten erakunde argitaletxe ohiz kanpokoek argitaraturiko liburu gehienak bezala, honen moduko liburuak ez dabilta editorial eta banaketa zein promozio bide arrunten zirkuituetatik, inongo zuzentzailek ez ditu orrazten, katalogo ospetsuek ez dituzte jasotzen, eta hori nabari-nabari gertatzen da honetan ere, behar baino akats gehiago dituelako. Baina horrek ez dio mamiari asko kentzen, hain zuzen ere. Hau da, gai dramatiko eta antzezgarriak badu lanak, eduki ere!

1968. urtean hasi zen iraultza moduko hartan, gurean ere erregimen politikoa aldarazi nahi zuen antzerki politikoa idazten eta antzezten hasi zen. Lehenengo sistema suntsitu eta antolamendu berria abiaraztea zen helburua. Errealismotik utopiarantz. Urteak joan urteak etorri, zenbat eta askatasun formal gehiago lortu, orduan eta antzeztan arinagoak jokatzen eta idazten hasi ziren, hala Espainian nola Hego Euskal Herrian ere, Ipar Euskal Herrian egoera beti ezberdina izan denez gero, antzerkiaz den bezainbatean (ere). Debekupean idatzitakoak eta antzezturikoak beste zapora bat zuten. Egungo autonomia sistema burujabe samarrean merkatuaren lege gogorra antzerkiaz (eta kulturaz) jabetu da hein handi batean.

Antzerkiak, literatura dramatikoak gizarteari eragin behar dio, herritarrak astindu, egoera ezerosoan jarri beharrean dago. Horrelakorik ez da gaur egun Euskal Herrian ikusten. Txiste kontalariek, inprobisatzaileek eta umore kloniko eta espainiartuak euskal antzo-

kiak zelai errea bihurtu dute. Jai testu ustez dibertigarriak (itzuliak, normalean) jokatuta egungo errealtatearen kiratsa estali gura ei dute. Gurari errespetagarri... bezain hutsal eta alferrekoa, ustel hatsa nekez ezkututzen delako. Demokrazian ez bide dago haserre biziko antzezlanik idazterik eta antzeztetik. Esne mamitan bizi bagara, zertan datoz bele ilun horiek halako testu dramatikoak proposatzera? Doazela antzarrak ferratzerat! Kultura aldetik, itxuraz, pentsatu liteke euskal gizarteak ia perfektua dela. Ahul baino ahulago den arren, sistema bera zein sistemaren aurka daudenak ere kritikatzek behar den dena kolokan jartzen duelako. Kritika gabe, ordea, giza-kiaren obra guztiak fosildu, zurtu egiten dira. Eta, itxura batean, benetan antzeztan den euskal antzerkia edo literatura dramatikoak egungo joera komertzialen mendekoa da.

Sermoiak garaia, ideologiaren sasoia joana ei da. Gaur egun salaketak egin behar dira ezer salatu gabe. Diskurtsoa arindu behar da. Panfletoak gustu txarrekoak dira. Merkatuaren legeen mendean ez dagoen antzerkia ez omen zaie interesatzen euskal talde eta ekoizleei. Ahaztu ohi zaie, beraz, gai bat aukeratzeko ekintza bera, berez., badela jarrera hartzea, ideologiak dena kutsatzen duela. Errealitate gordin edo deseroso bat aurkeztea, antzezteak, are idaztea bera ere errealtate hori konpontzen hastea da. Munduan diren egoera salagarriak, euskal gatatzaren gordina ikusgai jartzea lagungarri gertatuko da hura dena bideratzen. Oso gai komertziala ez bada ere. Hala bai? Ekar beza irakurleak gogora, bestela, *Euskal Pilota* dokumentalaren arrakasta. Ausardi kontua baino ez da izango dena? Zelan bizi daiteke herri oso bat antzerkian gertatzen den kultur kolonizazioaren mendean inortxok ere ezer esaten ez duela?

Kontua da auzo herrietan gai konprometitu batzuek arrakasta izugarria biltzen dutela antzokietan, baina horiek ez ditugu itzultzen, ez dakartzagu gurera. Eta hemen sortutako gidoi ilunak ere aurkezten ez ditugunez gero, halako kultur eskasia moduko batean bizitzera behartuta gaude, politikariak eurak ere asko kezkatzen ez direla. Boterean direnak goxo eta beren buruarekiko konformidadean bizitzea ulergarri da oso. Jakina. Gutxiago ulertzen da botere egitura horrekin bat ez daudenek ere kezka handirik ez erakustea.

Egun antzerki alternatiboa eta komertziala ia gauza bera dira gurean, seguru asko alternatibo eta independentea aspaldian hil zelako, aspertuta, etsituta, gizarteak ahazturik, ia oharkabean.

Kritikoa izatea gaitza da: diren dirulaguntza urriak galtzeko arriskua ekar dezake. Normalizazioa, kulturana, halere, ez da etorriko kanpoko lan komertzial edo ospetsuak gurera ekartzearen bitartez, gure idazlanak etxean ez ezik, atzerrian ere, beste hizkuntzetan ere jokatzen dituztenean. Baina, zela antzeztuko dituzte kanpotarrek euskal egileen antzezlanak, guk geuk ere ekoizten ez baditugu?

Itaun lotsabako bat egin dezakegu: zelako antzerki politika darabilte euskal erakundeek? Kanpoko delegazio bat baletor Euskal Herrira, zein antzokitara eroango genuke? Konpainia nazionalaz galdetuko balute, zer esango genieke, halakorik ez daukagula? Eta euskal antzeztan idazleen berri eskatuko baligute? Aspertu eta nazkatu egin direla eta idazteari utzi diotela?

Ikusleak omen dira jaun-andre eta jabeak kulturana. Ikusleak ez dira okertzen, gustukoa dutena, komertziala, ona da, berez. Irizpide horren ondorioa argia da: antzeztan komertzial eta erosoak baino ez dira jokatu behar. Merkatarien arazoak dira, ez kultur jendearenak. Hildako eta atzerriko egileak besterik antzezten ez dituen antzerki-gintzari eta kulturari ezin ezar dakieke "biziak" deiturarik.

Gizakia, pertsona ez da akasgabea. Gizakiaren ekoizkinik prezia-  
tuena, kultura, are gutxiago ere. Guri denoi perfekzioetik urrun gaude-  
la gogora ekartzea du helburutzat antzerkiak. Egungo dramaturgiak  
zeregin hori betetzen ez badu, zertarako da? Hala, bada, ondo etorri,  
beraz, Pablo Barrio euskal literatura dramatikoaren basamortuan al-  
darri egiteko zereginera. Eta ez bedi alferreko dei gerta haren testual